

'Mihise Gazte Experience' ekitaldiak esperientzia, hitzaldi eta kontzertuekin aktibatu du Bizkaiko gazteria

18 eta 30 urte bitarteko gazteek gazteentzat sortutako ekitaldi berritzaile bat izan da larunbat honetan Bilboko Konekta-La Perrera gunean. Topaketarako eta eraikuntza kolektiborako gune bihurtu da, osasun mentalari, feminismoari, kirolari eta arrazakeriari buruzko hitzaldien bidez, kontzertu, dinamika eta esperientziekin batera.

BILBO, 2023ko urriak 28 - 'Mihise Gazte Experience' ekitaldiak esperientzia, hitzaldi eta kontzertuekin aktibatu du Bizkaiko gazteria 18 eta 30 urte bitarteko gazteek gazteentzat sortutako ekitaldi berritzaile bat izan da larunbat honetan Bilboko Konekta-La Perrera gunean. Topaketarako eta eraikuntza kolektiborako gune bihurtu da, osasun mentalari, feminismoari, kirolari eta arrazakeriari buruzko hitzaldien bidez, kontzertu, dinamika eta esperientziekin batera.

BizkaiaGara-ren eskutik, gazte talde batek 'Mihise Gazte Experience' ekitaldia sortu du, urriaren 28 honetan, larunbata, Bilboko Konekta-La Perrera gunean 11:00etatik aurrera. Bizkaiko gazteak aktibatzeke lehen ekitaldia 18 eta 30 urte bitarteko gazteek sustatu eta protagonizatu dute, hainbat begirada eta errealitatekin, eta hilabeteetan zehar lan egin dute elkargune eta eraikuntza kolektibo bat sortzeko, aldaketak sortzeko. Ekitaldiak, "Gauza bera ikusten dugu? Edo, zer ikusten duzu zuk?" lelopean, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailaren laguntza izan du.

Naizen/Anitzak taldeko Xabi Cabrerak bere istorioa partekatu du, eta pertsona *trans* gisa bizitako prozesuak bere osasun mentalari nola eragin dion azaldu du: "Igarobide desberdinak daude eta pertsona bakoitza mundu bat da. Nire kasuan, ideia suizidak izan nituen, gauetan ohean giltzapetu nahi nuen, ez nengoen gustura neure buruarekin, kalera irteteak ere erreparoa ematen zidan. Genero Unitatean egin nuen lehen hitzorduan, azkenean zorientsu izateko bidea iritsi zela sentitu nuen. Prozesu hormonal COVID-19aren pandemian izan zen, eta bonba bat izan zen emozioei dagokienez. Pentsatu nuen hormonatzean eta bularra kentzean hobeto sentituko nintzela neure buruarekin, baina ez zen hala izan, eta konturatu nintzen asko eskatzen niola neure buruari. Oso urrun nengoen gizarteak aintzat hartzen dituen gizon ereduetatik. Bizitza kentzean pentsatu dut, ez nuelako neure burua ikusten sare sozialetan saltzen zen bezala. Garrantzitsua da prestakuntza, ezagutza eta tratamenduak eskuratzeko erraztasun handiagoa izatea; garrantzitsua da inguruan seguru sentitzea. Zorientsu izateko eta ni neu izateko urratsa eman nuen nik, eta nire bizitzan hartu dudak erabakirik onenetako bat izan da, nahiz eta gogorra izan den. Inork ez digu esango nor garen, guk geuk baino ez".





BizkaiaGara FAKTORI



Bestalde, Garazi Sanchez surflariak 'Mihise Gazte Experience' ekitaldira bertaratu direnei esan dienez, "18 urterekin krisi txiki bat izan nuen, lortutako emaitzari bakarrik begiratzen zitzaiolako, zenbakiei. 18 urterekin, bazirudien bizitza osorako surflari izan behar nuen ala ez erabaki behar nuela, eta hori erabaki behar izatea nahiko arriskutsua eta konplexua zen. Nik nire belaunaldia "funtzionariotzan" ez erortzera animatzen dut, zorientasuna beste leku batean baitago. Niretzat, kirola tresna bat izan da nire sentitzeko modua eta munduan egoteko arrazoia aurkitzeko eta proiektuekin ilusionatzeko. Prozesu horrek denbora eta ziurgabetasuna eskatzen ditu, eta garrantzitsua da lanbidea eta pasioa des-romantizatzea. Zaila da gure bidea aurkitzea, eta laguntza eskatu behar da beharrezkoa ikusten badugu; izan dudak ikaskuntzarik handienetako bat da. Gainera, 27 urterekin bizkarrezurreko istripu bat izan nuen eta itsasertzean ibili ezin gabe geratu nintzen. Medikuek esan zidatenean ziur aski ez nuela berriro surfik egingo, nire erantzunak aurkitu behar nituela ulertu nuen, eta zutabeko ebakuntzaren ondoren nire ibilbideko emaitzarik onenak etorri ziren. Kirolak balio asko transmititzen dizkigu. Onena izateak ez du zerikusirik arrakastarekin. Surfarekin nire lekua aurkitu dut gizartean".

Lore More Portugaleteko talde feministako Iluntzek eta Mariak nabarmendu dutenez, "ez dago feminista izateko errezetarik. Sarean eta komunitatean egindako lana da. Guk "Erein, zaindu eta eraldatu" goiburua erabiltzen dugu, elkarrekin hazten garelako, zaintzari garrantzia ematen diogulako eta horien bidez aldaketa sortzen dugulako. Gainera, egoeraren bat ikusten baduzue edo egoera negatiboren bat pairatzen baduzue, zuzenean gurekin harremanetan jar zaitezketen". Arrazakeriari buruzko azken hitzaldiak Khalid Allali izan du protagonista, eta bere esperientzia pertsonala kontatu du: "2020an Espainiara iritsi nintzen, kamioi baten azpian, arropa beltzarekin, ikus ez nintzaten. Euskal Herrira iritsi nintzenean, Afrika iparraldeko jendearekikon pertsona arrazista eta oso arrazistak zeudela konturatu nintzen. Magrebtar gazteok etiketa asko ditugu. Ezetz uste badugu ere, pertsona guztiok ditugu jokabide arrazistak. Nik jatorrizko herrialdea utzi nuen beste ikuspegi bat nuelako, bizitza beste modu batera ikusten nuelako, bizi-kalitate hobea nahi nuelako, ikastea, prestakuntza izatea, lan duina... ". 'Mihise Gazte Experience'k, halaber, esperientzia sensorial baten bidez aktibatze aukera eman du, errealitate birtualeko betaurrekoen bidez, Googaz taldearekin; baita sormenari bide emateko ere, Selene Torrado, Leire Fresnedo eta Yara Blossomen laguntzarekin. 13:30etik aurrera, La Perreren kanpoaldean, DJ SET, Taghufi, Cris Orube eta XSakara izan dira, "Mihise Gazte Experience"-i musikarekin amaiera emanez.

BizkaiaGara herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitariorako espazioa da BizkaiaGara, eta gure lurraldeko pertsonen, erakundeen eta organizazioen zerbitzura dago. BBK-k, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EDE Fundazioak bultzatutako proiektua da.

Informazio gehiagorako:

Garazi Barriuso: komunikazioa@bizkaiaagara.eus - 650207926

